ELGOIBAR - 753. zenb. - XVIII urtea - 2010-09-17

# B
BARREN

TOKIKOM



# "Margotzeko beharrak eman dit aurrera egiteko indarra"

**Emilia Nogales**


¿Euskara?
¡Sí, quiero!
Nik
3.maila = EGA
MIRARI
Nik
2.maila
IGOR
Nik
erdi galdutakoa berreskuratu
MAITE
Matrikula erdia eta beka sistema Udalari esker.
Izen ematea 24a arte.
aek
Plaza Txikia,3 - Tel.: 607 601 423 - elgoibar@aek.org


TXANKAKUAREN X. FERIA
2010eko irailak 18 - LARUNBATA
Tokia: Foruen Plaza.
11:00etatik 14:00etara
Produktu / zerbitzuen erakusketa eta salmenta.
Haurrentzako parke puzgarriak.
TXU-TXU trena herriko kaleetan zehar.
TXANKAKUA VISA TXARTELAren stand-a.
Txartela eskatzen dutenek opari bat jasoko dute.
OPARIA: Irailaren 13tik 18ra bitartean elkarteko edozein dendatan egindako erosketa-tiketa gordetzen baduzu (erosketa-tiket bezala zigilatuta egon behar da) opari bat jasoko duzu plazan tiketa aurkeztean. (Opariak bukatu arte).
Edari eta pintxoen txosna.
13:30etan
600 €-ren zozketa
100 euroko 6 sari erosketa baleetan.
Anima Zaitez, zain gauzkazu!
TXANKAKUA Elgoibarko Merkatari eta Zerbitzu Elkartea
TXANKAKUA
Dirulaguntza / Subvenciona:
Elgoibarko Udala
Ayuntamiento de Elgoibar

# *Ni ere banaiz BARREN!*



Atzo izan balitz moduan akordatzen naiz. 1992ko abenduaren 24a zen, Gabon Eguna, eta banatzaile gazte batzuk lagun nituela jardun nuen BARREN banatzen Elgoibarko kaleetan. Pozik eta harro jardun genuen, hari eta honi BARREN eskaintzen; urtebete inguru batzar, aurkezpen eta paper artean ibili ondoren, esku artean geneukan egindako lanaren fruitua.

Horrelakoetan, baina, hastea izaten da errazena; zaila denboran irautea da, mantentzea, eta, ahal den neurrian, haztea eta hobetzea. BARRENen atzean, zorionez, hasierako berotasuna baino zerbait sendoagoa zegoela ikusi dugu, eta laster 18 urte beteko ditu astekariak. Hasieran txikia zena, handitzen eta sendotzen joan da, eta 753 ostiraletan jo du gure etxeetako aldaba.

Sektore publikoko eta pribatuko krisiaren ondorioz BARREN diru beharrean dagoela jakin dudanean, estreinako alea banatzen jardun nueneko eguna etorri zait burura. BARRENek argia ikusi eta haren ondoan eman nituen lehen egunak eta hilabeteak pasa dira nire begien aurretik; gogorrak izan ziren batzuk, baina gozamenari eta ilusioari lotuta datoz gehientsuenak. Eta hauek denak bueltaka dabilzkidanean, ni ere BARREN naizela sentitu dut. Proiektu horretako parte naizela sumatu dut, eta bost euro emateko gogoa piztu da nire barruan. BARRENek nire beharra du, nik BARRENen beharra dudan neurri berean, eta laguntza-bonoak erosiko ditut orduan piztu zen argia emenda ez dadin.

Elgoibartarron % 99,3k BARREN herriarentzat oso ona edo ona dela esan berri dugu. Hori hola bada, aukera paregabea daukagu BARRENi laguntzeko, eta asko lortuko dugu bakoitzak gutxi ipinita. Merezi duela uste dut.

Ales Arrieta

*“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com*

**“BARRENek nire beharra du, nik BARRENen beharra dudan neurri berean”**

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

Idama



Uztaileko irabazlea:
AINARA URKIDI

Abuztuko saria:
GEMOTERAPIA GORPUTZ-MASAJEA

Idama



Abuztuko irabazlea:
JESUSA BERGARA

Iraileko saria:
BETILEETAKO TINTE IRAUNKORRA ETA PEDIKURA

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik) Tel.: 943 74 40 26

# EMILIA NOGALES MARGOLARIA

## “Bizitzako une bakoitzak ematen dizkit margotzeko arrazoiak”



**Alabaren heriotzak iragana eta oraina bereiztu zituen Emilia Nogalesen bizitzan, orain dela bi urte. Ezbehar haren ondoren eginiko lanak bildu ditu margolari elgoibartarrak *Después* izeneko bilduman, eta datorren domekara arte izango du ikusgai Kultur Etxean. Sentimenduz eta emozioz beteriko 32 koadrok osatzen dute bilduma. Koadro handiak, txikiak, ilunak, kolore bizikoak, tristeak eta alaiak ikusi daitezke erakusketan. Azken batean, bi urteotan bizi izan dituen egoera desberdinak bildu ditu Nogalesek lan honetan, eta Elgoibarko herriak eta herritarrek familiakoei eskaini dieten babesa eskertu nahi izan du erakusketa honekin.**

**_Después_ izena jarri diozu erakusketari. Zer ikusiko dute Kultur Etxera gerturatzen direnek?**
Nire alaba hil zenetik hona eginiko lanak jarri ditut erakusketan. 32 koadro ikus daitezke guztira, denak azken bi urteotan egindakoak. Horregatik jarri diot *Después* izena erakusketari, Noraren heriotzaren ondorengo lanak direlako. Ezbehar hark nire bizitzako lehena eta oraina bereiztu zituen, eta kodroetan izugarri nabari da.
**Zer islatzen duzu koadroetan?**
Nire sentimenduak islatzen ditut. Ezbeharra gertatu ondoren eginiko lehenengo lanak oso ilunak eta tristeak dira. Denbora pasatu ahala eginiko koadroetan kolore gehiago azaltzen dira. Dena dela, lan guztietan dago alabari buruzko zerbait: idatziren bat, figuraren bat... Ezkutuan daude motibo gehienak, eta askotan zaila da ikustea, baina ondo ezagutzen nautenek berehala ikusten dituzte. Batzuek kirola eginez askatzen dute barruan dutena, edo idatziz, edo abestuz. Niri, bata zikina jantzi, eta estudioan margotzea gustatzen zait, bakardadean. Margoari esker kanporatzen dut sentitzen dudana.

> **“Norbere herrian profeta izatea zaila dela diote, baina ni oso ondo hartzen naute hemen”**

**Nolako harrera izan du erakusketak?**
Pozik nago, baina orain dela bi urteko erakusketan gehiago saldu nuen. Krisiaren eragina artean ere igartzen da. Azken batean, koadroak kapritxoz erosten dira, eta orain ez da kapritxoetarako garaia. Hala ere, jende asko etorri da erakusketa ikustera, eta askok, gainera, koadroak politak direla esan didate. Beste batzuk galdetu egiten didate koadro batean edo bestean zer ikusten den, zer adierazi nahi izan dudan... Hala ere, ez diet den-dena kontatzen. Koadro asko nire alabari egin dizkiot, eta ez dut izaten azalpen gehiegi emateko gogorik. Oro har, gustura nago erakusketak izan duen harrerarekin. Sarri entzuten da norbere herrian profeta izatea zaila dela, baina ni oso ondo hartzen naute Elgoibarren. Bi urtetik behin egiten dut erakusketa Kultur Etxean, denbora hori behar izaten dudalako bilduma bat egiteko. Azkena nire alaba hil eta hilabetera egin nuen. Ez neukan gogorik, baina erakusketa gela hartuta neukan, eta ahal nuen tokitik atera nuen indarra. Herritarrek izugarri lagundu digute, eta haiei eskerrak emateko modua da nire koadroak erakustea. Lanean ari naizela eta aurrera egiteko ahalegina egiten ari naizela azaltzeko modua da.
**Nola aldatu da zure bizitza azken bi urteotan?**
Erabat aldatu da. Lehen erraz egiten nituen gauzak, orain izugarri kostatzen zaizkit. Goizean jaiki, jantzi eta lanera joateko prestatzea gauza erraza zen lehen, baina, orain, lan handia da. Margotzeko beharrak eman dit aurrera egiteko indarra. Horri esker jaikitzen naiz egunero. Nire buruari betebehar edo obligazio moduko bat jarri diot, bestela etxean sartuta egongo nitzatekeelako egun osoan. Gutxi bada ere, egunero margotzen dut zeozer. Bi goiz hartzen ditut gimnasiora joateko, hori ere behar dudalako, baina betebeharrak edukitzea ezinbestekoa da psikologikoki aurrera egiteko. Egun batzuetan estudioa itxi eta etxera joan behar izaten dut negar egitera. Tentsio hori barruan daukat oraindik, eta jendearentzat bi urte pasatu badira ere, nik atzo izan balitz bezala gogoratzen dut.
**Urte asko daramatzu margotzen, eta azken urteotan zure afizioa ofizio bilakatu duzu.**
Orain dela hamalau edo hamabost urte inguru hasi nintzen, eta hainbat alor probatu ditut. Moda diseinatzaile bezala hasi nintzen, baina hortik bizitzea oso zaila zela ikusi nuen. Orduan, margo ikastaro bat egin nuen, eta asko gustatu zitzaidan. Olioak margotzen hasi nintzen, baina berehala aldatu nuen teknika, eta ordutik, pintura akrilikoa erabiltzen dut. Etengabe saiatzen naiz nire estiloa berritzen, eta azkenaldian material diferenteak gehitzen dizkiet koadroei: egunkariak, zakuak... Horrez gain, kamisetak eta poltsak ere margotzen ditut. Izugarri gustatzen zait moda, eta, era horretan margoa eta moda uztartzen ditut. Koadrorik saltzen ez den garaian, laguntza txiki bat ematen didate kamisetek.
**Badaukazu sekula salduko ez zenukeen koadrorik?**
Bai, eta horietako bat erakusketan dago. Noraren heriotzaren ostean margotu nuen lehenengo koadroa da. Lehenengo begiratuan ez da ezer ikusten, baina han daude gure sentimendu guztiak. Lan hori geurea da, eta ez dago salgai.

> **“Alabaren heriotzak nire bizitzako lehena eta oraina bereiztu zituen”**

**Zer margotzen du Emilia Nogalesek?**
Bizitzako une bakoitzak ematen dizkit margotzeko arrazoiak. Era berean, nire sentimenduek eta umoreak eragin handia dute koadroetan. Hori guztia fantasiazko irudietan islatzen dut. Askotan ez ditut neurriak zaintzen, eta paisaiak ere niri gustatzen zaizkidan moduan margotzen ditut. Nire koadroetan errealismo gutxi dago.
**Nolako koadroak margotzea gustatzen zaizu gehien?**
Koadro handiak marrazten gozatzen dut bereziki, baina txikiak ere egin behar izaten ditut. Koadro bakoitza mundu bat da, eta askotan koadro txiki batek handiak baino lan handiagoa ematen du. Batzuetan erraz irteten zait islatu nahi dudana, baina egun txarrak ere tokatzen dira, eta ez zait ezer irteten. Askotan oihal zuriari begira egoten naiz luzaroan, eta ezer margotu gabe joaten naiz etxera. Koadro bat amaitutzat ematea ez da erraza. Batzuetan horman zintzilikatutako koadroak ere gainetik margotu izan ditut.
**Aurrera begira, zein helburu jarri dizkiozu zeure buruari?**
Alabaren ezbeharra gertatu zenetik, egunean egunekoa bizi dut, eta ez ditut epe luzerako helburuak jartzen. Urriaren 8tik 10era Bartzelonan egingo dut erakusketa bat, eta hori da nire asmoetan urrunen dagoena. Egunerokoa gainditzea da nire helburua, eta ez dut etorkizunerako planik egiten. Bizitzak erakutsi dit gaur hemen egon arren, bihar agian ez garela egongo, eta planak egitea alferrik dela.

**Ainhoa Andonegi**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: *barren@elgoibarkoizarra.com*.

**Amarengandik jaioak gara**

Abiadurak ez du bizitza errespetatzen. Helburu nagusia denboraren aurkako bataila bortitza irabazi eta guri, gizakioi, plazerra ematea da. Baina badu bere eragina. Abiadura handiko trenak, autopistak, ereka kanalizazioak… Dena dago eginda, dena azkarrago joateko. Eta lurreko zein uretako gainerako bizidun guztiak, zer?

Animalia askoren galeriak trabatuta daude, dauden azpiegitura guztiengatik, eta ondorioz, haien bideak moztuta daude. Era berean, bioaniztasuna galtzen ari da. Edozerk balio du, gizakion erritmo frenetikoa mantsotu ez dadin.

Patriarkatua iritsi aurretik, ama maitatzea zen gure sustraia, bizia eman digun ama. Amarengandik jasotzen dugu dena. Bera maite behar dugu, eta halaxe egiten dugu denok. Maitatzeko era desberdinak daude, ordea. Gizartea manaiatzen dutenek, adibidez, ez dute ama merezi duen moduan maite.

**AHTrik ez Elgoibar**

**Atletismo jaia dela-eta, esker onez**

Idatzi honen bidez, Mintxeta Atletismo Taldeak eskerrak eman nahi dizkie Elgoibarko Udalari, Udal Kirol Patronatuari, eta nola edo hala, beraien laguntza eskaini duten enpresa guztiei: Elgoibarko Kutxa, Marcajes Telleria, Pitxintxu liburudenda, Astigarraga etxea, Txarriduna, Lojantzi, Aterpe, AudioScan, Altzolako Urak, Debabarrena, Lagun-Aro eta El Corte Ingles. Guztien laguntza eskuzabalari esker, lehenengo atletismo jaia arrakastatsua izan da.

Elgoibarko herriari ere eskerrak eman nahi dizkiogu ekitaldiaren antolatzaileei eskainitako laguntzagatik, baita gure herrira gaueko lehenengo lasterketan parte hartzera eta ondo pasatzera etorri ziren atleta guztiei, egindako harrera beroagatik ere.

Ez ditugu ahaztu nahi, eskuzabaltasun osoz, ekitaldi guztietan lagundu diguten pertsonak. Sukaldariak; zerbitzariak; Baltzola Anaiak; Ziarda, Meabe, Mañukorta, Mikel Olaizola, Yagoba Arrasate, Fernando Loiola eta Agustin Irusta bertsolariak. Izan ere, giro paregabea jarri zuten ostiral gauean baita ere Haritz Dantzari Taldeari eta Udal Txistulariei. Bihoa gure esker ona motorzaleentzat, txirrindularientzat, auto gidarientzat eta Gurutze Gorriarentzat; laguntza eta segurtasuna eskaini baitzizkieten larunbateko lasterketan parte hartu zuten atleta guztiei. Eta nola ez, parte hartu duten atleta guztiei.

Atletismo jaiaren xedea hauxe izan da: Nazioarteko Juan Muguerza Krosera-ko dirua biltzea, hurrengo edizioaren maila aurtengoa baino handiagoa izan dadin. Horregatik, lanean jarraituko dugu 2011ko urtarrilaren 23ra arte, LXVIII. edizioaren egunen Mintxetan elkar ikusiko dugun itxaropenez.

**Mintxeta atletismo taldea**

**Mila esker, eta datorren urtera arte!**

Dagoeneko sei urte pasatu dira jai hauek berreskuratzen hasi ginela, eta urtero ahalegintzen gara ahalik eta egitarau zabalena prestatzen. Eskutitz honen bidez, aurtengo San Antolin jaietara hurbildu zareten guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu. Jaietarako antolaturiko ekintzetan horrelako erantzuna izateak indarra ematen digu hurrengo urtean ere lan honetan jarraitzeko. Mila esker!

**Kaxeta, San Antolin auzo elkartea.**



ESKERTZA

## JOSE LUIS ARRIOLA OSTOLAZA

2010eko irailaren 12an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



**Barren**

**BARRENek** bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRENek** ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112
Faxa: ☎ 943 743 704
E-posta: *barren@elgoibarkoizarra.com*
Publizitatea: ☎ 943 743 704
E-posta: *barren.publi@elgoibarkoizarra.com*

Argitaratzailea: ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Eneritz Lazkano, Izaro Etxegibel
MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo.
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Joanes Rodriguez

Ez da hilabete erraza izaten iraila. Alde batetik, udan pilatutako errutina aldaketak, eta, bestetik, egunerokotasunera bueltatzeko beldurrak. Hau da, uda aurretik amaitu gabe utzitako lanak, memoriak, zitak... Pilatutako lanen artean, garai batean Aneri agindutakoa: berak eta Maialenek utziko duten hutsunea betetzea. Azkarregi ez ote genien erantzun? Egia esateko, honek zu, Maialen Arnedo, pixka bat hobeto ezagutzeko atea ireki dit, eta ezin kexatuko naiz. Zenbat gauza pasatu zaizkigu elkarrekin azken hilabeteetan e, Arnedo? HARRO2, Irañeta, jaiak… eta orain, Zozoak Beleari! badaukagu aitzakia aurten ere elkarrekin kafetxoak hartzeko.

## “BARREN denok garen bezala, Elgoibarko Izarra ere denok gara, herritar askok jakin ez arren”

Bada, nola esan ezetz BARRENen kolaboratzeari? Momentu egokian gainera. Gaur, Irailak 17, BARRENekoen azkeneko kanpaina jarriko da martxan, *Ni ere banaiz BARREN*. Horrela sentitzen dugu batek baino gehiagok esku artean daukazuen paper multzo hau. Gogoan daukat, bai, zuri-beltzean zenean azala, txikiBARRENen agertu nintzen lehenengo aldia, barikuetan lehenengo gauza buzoira begiratzera joaten nintzenekoa, BARRENak banatzea tokatu zitzaidan lehenengo aldia…

Finantzaketa bila haste hau zulotxo bat besterik ez da, eta denon artean konponduko dugu! Ondo ezagutzen dugu, bai, zer den dirua falta izatea Elgoibarko Izarra elkartearen bueltan ibiltzen garenok. Azken finean, BARREN denok garen bezala, Elgoibarko Izarra ere denok gara, herritar askok jakin ez arren; Atxutxiamaika, Kuadrillategi, gaztelekua, ludoteka, santa eskea, Gabonetako bertso jaialdia, Kiribil… Zenbat proiektu eta zein merke! En fin… Azken finean, iraila ez da hilabete erraza inorentzat eta BARREN desagertuko balitz… Espero dut hau txiste txar bat besterik ez izatea, Maialen…



Maialen Arnedo



Maialeni eta Aneri testigua hartuta jantzi ditugu azkenean zozo eta bele mozorroak, Joanes. Ez ote zaizkigu ba handiegi geratuko? Handi edo txiki, gu saiatuko gara gure bi neskatilek utzitako hutsunea ahalik eta ondoen betetzen.

Etapa berri honekin batera, aurrekoak oinak zapaltzen dizkit. Astelehena geroz eta gertuago dagoela ikusita ezinbestean hasi behar izan naiz Gasteizera eramateko gauzak prestatzen. Logela erdi betetzear nengoela, kantu bat burura: *Udarekin batera udalekuak uuu, guretzako urteko egunik onenak*… zenbat aldiz abestu ote dugun kantu hau uda honetan. Baina, beste zenbait gauzei bezala, honi ere agur esan beharko. Udazkena ate joka datorkigu, Joanes, eta badirudi enkarguz beteta datorrela! Batzuk lanera bueltatuko dira, beste batzuk ikasketetara… eta, zergatik gezurrik esan? Badut gogoa klaseko lagunak ikusteko, kafetegian ordu luzeak pasatzeko, Kutxitik bueltatxo bat ematekо eta goizero-goizero fakultate ondoko tuneltxoaren azpian egoten den gizona agurtzeko.

## “Ni ere banaizelako BARREN, gaur, 19:00etan, Kultur Etxe aurrera joango naiz”

Hala ere, zenbaitentzat, irailak aldapa malkartsua dakar berarekin. Galdetu bestela BARRENeko langileei. 18 urte, 753 ale, milaka esfortzu eta ehundaka izerdiren ostean, hesi handi batekin egin du topo elgoibartarron astekariak. Nik ez daukat akorduan azala txuribeltza zenekoa eta banatzaile lanetan ere ez naiz ibili, baina, jakin badakit, 11 urterekin Elgoibarrera iritsi nintzenetik gustura hartzen dudala barikuero BARREN. Atsegin handiz irakurtzen ditut Nire Txanda, erreportaiak, Zozoak Beleari, erretratu zaharrak… eta ni ere banaizelako BARREN, gaur, 19:00etan, Kultur Etxe aurrera joango naiz. Animatzen al zara, Joanes?

Elgoibarko Udala

Mendaroko Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

DANOBAT

kutxa

GOITI
GRUPO DANOBAT

# GAUR, ostirala, 19:00etan
# Kultur Etxe parean



*Ni ere banaiz*

# BARREN!

**kanpainaren aurkezpena**

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA




**BARRENen aldeko BONOAK erosteko:**

-BARREN astekarian (Nafarroa plaza)
-Elgoibarko Izarran (Ubitarte 4)
-E-postaz eta telefonoz: 943 74 16 26
elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com

**BARRENen aldeko bonoak saltzeko prest al zaude?
Deitu edo idatzi Elgoibarko Izarrara eta
benetan estimatuko dizugu.
Eskerrik asko!**

**Merkatu Plaza azpian jarri duten paper edukiontziak aho txikiegia dauka:** “Merkatu Plaza azpian paper edukiontzia jarri dute, baina ez da leku horretarako apropoa. Merkatariek kartoizko kaxa handiak erabiltzen dituzte, eta edukiontzi horrek aho txikiegia dauka kaxa horiek barrura sartzeko. Hortaz, kartoizko kaxa guztiak kanpoan lagatzen dituzte askok, eta euria egiten duenean hondatu egiten dira. Bestalde, umeak kartoizko kaxa horiekin jolasten ibiltzen dira, eta ingurune guztia zikinkeriaz beteta lagatzen dute. Eskertuko genuke aho handiagoko paper edukiontziak jartzea gune horretan. Mila esker”.



**Bernardo Ezenarro kalean aparkaleku pila bat kendu dituzte:** “Bernardo Ezenarro kalean gero eta aparkaleku gutxiago dago. Zabor edukiontziak jartzeko, hiru edo lau aparkaleku kendu zituzten lehen, eta orain, obrak direla-eta, beste mordoxka bat kendu dituzte. Obrak beharrezkoak dira, eta ulertzekoa da, baina ezin al dira zabor edukiontziak beste lekuren batera mugitu? Mila esker”.

**Madalatik King-Kong ingurura ez dago zakarrontzirik:** “Madalako parketik King-Kong ingurura arte ez dago zakarrontzirik. Lehen San Frantzisko kalean bazeuden bizpahiru, baina kendu egin zituzten, eta ez dituzte berriz ipini. Lehengo batean, Madalan erosi nituen goxokiak, eta Urasandiraino eraman behar izan nituen paperak, zakarrontzirik ez nuelako aurkitu bide guztian. Herria garbi mantentzeko, ezinbestekoak dira zakarrontziak”.

Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: *barren@elgoibarkoizarra.com*
943-74 41 12



# Ikastetxea handitzeko obren zain, gela prefabrikatuetan hasi dute ikasturtea Herri Eskolako hainbat ikaslek

478 ikasle ditu Herri Eskolak gaur egun, eta ikastetxea txiki gelditu zaie

Herri Eskolan, gela prefabrikatuetan hasi dute ikasturtea Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailako ikasleek. 478 ikasle ditu Herri Eskolak gaur egun, eta ikastetxea txiki gelditu zaie. Hala, handitze obrak hasi arte, prefabrikatutako geletan egokitu dituzte ikasleak, lau gelako modulu batean. Data zehatzik ez dagoen arren, obrak abendu aldera hasi daitezkeela iradoki dute Eusko Jaurlaritzako iturriek.



### Obrak, bide onetik

Sigma auzoko sarrera-irteera hobetzeko hasitako proiektua bide onetik doa. Proiektu horretan jasotakoaren arabera, Olasoko errotondatik Sigmako lehenengo etxe blokeetara norabide biko bidea eraikiko dute, eta bidearen alde bietara 35 bat autorentzako aparkalekuak egingo dituzte. Proiektu horretarako aurrekontua 775.000 euro ingurukoa dela jakinarazi du Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkateak. Diru horren zati bat, %40a, Udalak jarriko du, eta gainerako %60a, Jaurlaritzak. Obren lizitazioa urriaren 15a baino lehen egingo da.

Aspaldian ez dira gutxi Elgoibarren hasitako obrak, baina bukatzear dira horietako batzuk. Antonio Arrillaga kaleko obrak, esaterako, eguaztenean amaitu zituzten, eta Kultur Etxean igogailua jartzeko obrak ere hil honetan dituzte amaitzekoak. Era berean, Gabriel Krutzelegi kalean eraiki duten ekintzaileen zentro berriko obrak ere bide onetik doaz, eta hilabete honen azkenerako amaituta egongo direla uste du Udalak.

## Irailaren 30a arte dago Berbazulo egitasmoan izena emateko aukera

Euskaraz ez dakitentzako eta euren euskara hobetu nahi duten haur eta gaztetxoentzako Berbazulo egitasmoa jarri dute martxan Elgoibarko Izarra kultur elkarteak eta Elgoibarko ikastetxeek elkarlanean. Euskaraz berba egiteko zailtasunak dituzten 5 eta 11 urte bitarteko umeei zuzendutako ikastaroa da, eta astean bi orduko eskolak izango dira. Ikastaroetan apropos eurentzako prestatutako metodologia erabiliko da. Urrian hasiko da ikasturtea, eta interesatuek irailaren 30a arteko epea dute izena emateko. Izena emateko nahiz argibide gehiago jaso nahi izanez gero, deitu Elgoibarko Izarrako telefonora: 943 741 626 (Idoia).

## Txankakua Merkatari eta Zerbitzu Elkarteak azoka antolatu du biharko



Bihar egingo dute Txankakuako merkatariek urteroko azoka. 11:00etatik 14:00ak bitartean, elkarteko denden produktuak ikusi eta erosteko aukera izango da Plaza Handian, eta era berean, umeentzako puzgarriak ere jarriko dituzte. Iaz bezala, Txu-txu trena ere ekarriko dute, eta hortaz, trentxoan sartu eta Elgoibarko kaleetan zehar ibilaldia egiteko aukera ere izango dute herritarrek.

Opariak ere izango dira. Aste honetan elkarteko edozein dendatan egindako erosketen tiketa gordeta duenak bihar opari bat jasoko du plazan bertan, zigilatutako erosketa tiketa aurkeztuta. Hori bai, opariak amaitu arte iraungo du promozio horrek. Era berean, irailaren 13tik bihar arte elkarteko edozein dendatan eta biharko azokan erosketak egiten dituztenen artean zozketa bat egingo dute. Ehun euroko sei erosketa bale zozketatuko dituzte. Zozketa hori 13:30ean egingo da, eta saria eskuratzeko, tartel saritua plazan egon beharko da, zozketa egiten den momentuan bertan.

## Pertsonaia Mikel Ibañez




Mikel Ibañez preso elgoibartarra Martuteneko kartzelatik atera dute. Gaixotasun larriagatik 2008tik etxean ari zen betetzen zigorra, baina joan den abuztuaren 10ean berriro kartzelan sartu zuten. Minbizia du eta elbarritasun handia. Abuztuan, berriz preso sartu aurretik, Ibañezek baimena eskatu zuen ordu batzuk kalera ateratzeko, oinez ibiltzea beretzat osasungarri litzatekeelakoan. Auzitegi Nazionaleko fiskalak, baina, espetxean sartzeko eskatu zuen, han oinez ibiltzeko aukera izango zuela-eta. Amnistiaren Aldeko Mugimenduak gaixo dauden presoekin egiten ari direna salatu du.

## Zenbakia 48.000

48.000 lagun ibili dira aurten Mintxetako igerilekuetan, iaz baino gutxiago, baina iaz baino eguraldi txarragoa egin duela kontuan hartuta, “asko”. Iazko udarekin alderatuz, eguraldi oneko egun gutxiago izan dira aurten, baina hala ere, bi egunetan, ekainaren 29an eta uztailaren 19an, 2.000 erabiltzaile baino gehiago izan zituen. Udako 23 egunetan, gainera, 1.000 erabiltzaileren marka gainditu zen. Batez beste joan zen udan baino jende gehiago hurbildu da Mintxetara egun ona egin duenetan, baina ez da iazko kopurura iritsi. Iaz, 55.000 erabiltzaile izan zituen igerilekuak.

## Irudia Polizia operazioa

Martitzen goiz parte osoan Guardia Zibilak itxita izan zuen San Inazio kalea. Goizaldean bederatzi lagun atxilotu zituen Guardia Zibilak Euskal Herrian, Kantabrian, Aragoin eta Valentzian, Ekinekin lotura izatea leporatuta, eta guardia zibilek hainbat miaketa egin zituzten, Grande Marlaska Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaileak aginduta. Elgoibarren sindikatuek erabili ohi duten lokal bat miatu zuten, eta goiz osoz inguratuta izan zuten poliziek kale hori.



### Kinto bazkaria Mendaron

Mendaron jaio edo bizi, eta aurten 55 urte betetzen dituztenentzako kinto bazkaria antolatu dute, urriaren 17rako. Mendaroko Landa jatetxean izango da bazkaria, 14:00ak aldera. Bazkaritara joan nahi duenak 50 euro sartu beharko ditu Kutxako ondorengo kontu korrontean, urriaren 14a baino lehen: 21010054190012690111. Informazio gehiagorako: 943 033 513 (Juanita) edo 943 742 279 (Charo).

### Martitzenean amaituko da Aiastiako bertso afarirako izena emateko epea

Badatoz Aiastiako jaiak ere, eta urtero legez, bertso afaria antolatu dute auzotarrek. Maialen Lujanbio eta Xabi Paia ekarriko dituzte kantura. Afaritarako izena eman nahi duenak irailaren 21a arteko epea du. Txartelak ondorengo lekuetan erosi ditzakezue, 35 eurotan: Armueta, Ziarda, Sahatsu eta Arrizabalaga harategietan, eta Javier Arrizabalagari (617 332 350) edo Angel Ibarluzeari (635 723 255) eskatuta.

### Lana bilatzen hasteko doako ikastaroa

Internetez lana bilatzeko ikastaroa antolatu du Udalak, ikasleentzako, langabetuentzako edo beste lan bat aurkitu nahi dutenentzako. Besteak beste, lanpostu deialdien aurrean jarraitu beharreko pausoak nola eman behar diren irakatsiko dute. Ikastaroak doan izango dira. Informazio gehiagorako: 943 741 050

### Matrikulak zabalik AEKn

Irailaren 24an amaituko da AEK euskaltegian izena emateko epea. Euskalduntze orokorra, eta administraziorako, irakaskuntza edota Osakidetzarako hizkuntza eskakizunak, titulu homologatuak eta EGA eskainiko dituzte. Udalak emandako laguntzari esker, bekak eskuratzeko aukera izango da. Informazio gehiagorako: 607 601 423.

**Euskal herritarren %14k bakarrik nahiko lukete enpresa bateko nagusi izatea**

# Hartuko zenuke enpresa bateko ardura posturen bat?



**Sol Angel Saducea**
**49 urte, zerbitzaria**

Bai. Neure enpresako nagusi izatea gustatuko litzaidake, neure gustuko lana eduki ahal izango nukeelako. Langile arrunta izateko aukera denok daukagu, baina nagusi postuetara iristeko lan handia egin behar da, eta ez du edonork balio horretarako.



**Alexander Sampedro**
**28 urte, mekanikoa**

Bai. Hamar urte egin ditut enpresa batean lanean, eta orain neure enpresa propioa zabaltzeko aukerak aztertzen dihardut. Bankuek ez dute gehiegi laguntzen, baina saiatuko gara. Nagusi izateak ardura handia eskatzen du, baina gauza onak gehiago ditu, txarrak baino.



**Mikel Garate**
**14 urte, ikaslea**

Bai, nagusi izateak abantaila handiak dauzka. Nik nahi dudana egiteko aukera izango nuke, eta ez lidake inork aginduko. Ardura handia hartu beharko nuke, baina besteek baino soldata handiagoa izango nuke. Nik portu eta errepideetako ingeniaria izan nahi dut.



**Josune Leiaristi**
**48 urte, zerbitzaria**

Langile gutxiko enpresa txiki batean izango nintzateke nagusi, baina bestela ez. Nagusi izaten jakin egin behar da, eta ez da erraza. Nagusi askok gaizki erabiltzen dute agintea, eta langileak errespeturik gabe tratatzen dituzte. Nagusiak langileak ondo zaindu behar ditu.

---



I. URTEURRENA

## TOMAS OLAZABAL ARANBERRI

2009ko irailaren 14an hil zen, 82 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, irailak 19, goizeko 11:00etan Mendaroko Azpilgoetako Andre Maria Jasokunde elizan.
Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.





I. URTEURRENA

## SEBASTIAN ETXABE ETXANIZ

2009ko irailaren 17an hil zen, 80 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailak 18, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.




euskaraz hitz egiteko
Tertuliak
ezagutu
elkartu
nahi dogu
erabili
euskaraz bizi
tertuliak
euskaldunon mundua
IZEN-EMATEA IRAILAREN 20tik URRIAREN 8ra ARTE
Elgoibarko Izarra Kultur Elkartean - Ubitarte 4, behea - 943 741 626 - elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com
ANTOLATZAILEA
DIRUZALEAK
LAGUNTZAILEAK
ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
aek
UDAL
EUSKALTEGIA
topagunea

# 6.000 esaera zaharren irakurketa publikoa antolatu dute urriaren 8rako, Gotzon Garateren omenez

600 elgoibartarrek hamarna atsotitz irakurriko dituzte udaletxeko pleno-aretoan

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak eta Elgoibarko Udalak euskal esaera zaharren irakurketa publikoa antolatu dute urriaren 8rako (barixakua), Kutxaren eta Danobat Kooperatibaren babesarekin. Gotzon Garate idazle eta euskaltzale elgoibartarra hil zeneko bigarren urteurrenean, Gotzonek berak jasotako esaera zaharren irakurketa publikoa egingo dute.

Antolatzaileen asmoa *Atsotitzak* liburuan jasota dauden 6.000 esaera zahar irakurtzea da. Horretarako, 600 herritar inplikatu nahi dituzte ekimen honetan, eta bakoitzak hamar esaera zahar irakurriko ditu. Elgoibarko elkarte, erakunde, talde eta norbanakoak daude gonbidatuta ekimen horretan parte hartzera. Atsotitzak liburuan milaka esaera zahar batu zituen Gotzon Garatek, hogeita hamar urtean baserriz baserri egindako ibileretan.

Antolatzaileek Elgoibarko herritar guztiak animatu nahi dituzte esaera zaharren irakurketan parte hartzera. Animatzen direnek deitu edo idatzi dezatela honako telefono edo e-postetara: Elgoibarko Izarra: 943 741 626 / *elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com* eta Udaleko Euskara Saila: 943 744 366 *euskara@elgoibar.org*.

Izena emateko azken eguna irailaren 24a izango da. Irakurketa publikoa udaletxeko pleno-aretoan egingo da, eta hamar orduz jardungo dute herritarrek irakurtzen. Goizeko bederatzietan ekingo diote saioari, eta 19:00etan amaituko dute.



*Gotzon Garateri iaz egindako omenaldiko argazkia.*

## Bizipenetan oinarritutako liburua argitaratu du 'Luziano' margolariak



Lucio Ruiz-Poveda *Luziano* margolariak (Elgoibar, 1931) bere bizipenetan eta orain arte egin duen lan artistikoan oinarritutako liburua aurkeztu berri du. "Artista lanean baino gehiago zentratu naiz bizitzan eduki ditudan abenturetan, ez dira-eta gutxi izan". Bizitzako urterik zailenak eta gogorrenak ere aipatzen ditu liburuan, baina "modu atseginean" kontatzen saiatu dela dio. 220 orrialde ditu liburuak, eta azken hiru urtetako lanaren ondorioa da. Testuen zuzenketetan bere semeak eta ilobak lagundu diote, Miguel Ruiz Povedak eta Cristina Ruiz-Povedak, hain zuzen ere.

Elgoibarren jaioa da Luciano, baina 36ko gerra zela eta, Bilbora alde egin behar izan zuen haren sendiak, berak 6 urte zituela, eta handik Frantziara gero. Alemaniarren inbasioaren ostean itzuli zen Frantziatik, 1941ean, eta orduantxe piztu zitzaion arterako zaletasuna. Elgoibarko Arte eta Lanbide Eskolara joaten hasi zen, eta 19 urterekin hasi zuen artista karrera. Gaur egun, bi galeria ditu Luzianok. Bata, Madrilen, eta bestea, Zarautzen. Madrilgoan urte osoan zehar erakusten ditu bere lanak; Zarautzen berriz, udan, oporraldian.

# Sanbartolomeetan izandako parte-hartzea txalotu eta herritarrek erakutsitako konpromisoa eskertu ditu Udalak

## Madalako jai batzordea eta erreka jaitsiera antolatu zutenak zoriondu ditu Kultura Sailak

Jaien balorazio positiboa egin du Elgoibarko Udaleko Kultura Sailak. Krisiaren eraginez, aurten murrizketa batzuk egin dituzte egitarauan, eta iaz baino zazpi ekintza gutxiago egin dira: 73. Era berean, ekarritako musika talde eta txarangek ez dute beharbada aurreko urteetan ekarritakoek besteko izenik izan, baina, hala ere, pozik agertu da Udala, "jendetza handia" erakarri eta aparteko giroa jarri dutelako. Hala, jaietan izandako parte-hartzea txalotu du, eta eskerrak eman dizkie herritarrei jaiekiko agertutako "inplikazio eta konpromisoagatik". Elgoibar girotzen eta sanbartolomeetan antolatu diren ekintzak zuzentzen jardun dutenen zerrenda luzea osatu du Udalak, eta eskerrak eman dizkie jaietako "zutabe" izatearren, eta Elgoibar "bizi-bizixa" egiten laguntzearren.



Era berean, Madalako gune askeko jai batzordea ere zoriondu du Udalak, eta baita Gazteen Egunean erreka jaitsiera antolatu zutenak ere. Erreka jaitsieran hogeita sei koadrilak parte hartu zuten, eta dozenaka gaztek bazkaldu zuten Madalan, gune askeko jaietako egitarauaren barruan antolatutako herri bazkarian. Bi ekintza horiek arrakastatsuak izan zirela aitortu du Udalak, eta aurrera begira, egun hori bultzatu nahi duen edonorekin lan egiteko prest dagoela azaldu du Elgoibarko Udaleko Kultura Sailak.

## Plaza Txikiko Astea antolatu dute bertan jaio, bizi edo hazi diren hainbat elgoibartarrek

Plaza Txikiaren bueltan jaio, bizi eta hazitakoek Plaza Txikiaren Astea antolatu dute Udalarekin elkarlanean, inguru horretan bizitako sasoiak gogoratzeko asmoz. Bihar zortzi, hilaren 25ean, hasiko dituzte jaiak, 12:00etan, Mingorance ferietako saltzaile berritxuaren jardunaldiarekin. Hilaren 30ean eta urriaren lehenengo egunean, berriz, antzinako joko eta jolasak berreskuratuko dituzte 18:00etatik 20:00etara, eta urriaren 1ean bertan, 22:00etan, umorezko obra bat taularatuko du Taupada antzerki taldeak. Urriaren 2an, berriz, 11:30ean Plaza Txikikoen omenezko meza ospatuko dute San Bartolome parrokian, eta meza ostean, Plaza Txikian bilduko dira, ondoren, 14:30ak aldera, elkarrekin bazkaltzeko. Bazkaritarako izena eman nahi duenak 19 euro ordaindu beharko ditu [75 urtez gorakoek, 7 euro] Euskadiko Kutxaren ondorengo



kontu korrontean, norberaren-deiturak adierazita: 3035 0007 28 0071119160.

### Argazki zaharren erakusketa

Era berean, Plaza Txikiko argazki zaharrak biltzen hasi dira jai batzordekoak, urriaren 27tik azaroaren 3ra Kultur Etxean erakusketa bat antolatu asmoz. Etxean Plaza Txikiko argazki zaharren bat duenak Muruamendiaraz Gozotegian laga dezake eta itzuliko diote gero, behin eskaneatu ostean.

### Mendaroko aire libreko margo lehiaketa, hilaren 26an

Aire libreko margo lehiaketa antolatu dute Mendaron, hilaren 26rako. Nahi duen orok parte hartu dezake, eta edozein teknika nahiz formatu erabili ahal izango dira. Lanak 13:00etatik 14:00ak bitartean aurkeztu beharko dira udaletxean, eta aurkeztutako lan guztiekin Mendaroko Udalak erakusketa bat antolatuko du urriko lehenengo hamabostaldian. Informazio gehiagorako: *www.mendaro.net.*

### Hip-hop ikastaroan izena emateko epea, zabalik

Aurten ere hip-hop ikastaroa antolatu du Maria Escobedok Elgoibarren. Astelehen eta eguaztenetan bi saio emango ditu: 17:00etatik 18:00etara, oinarrizko ikastaroa, haur eta gazteentzat, eta 20:00etatik 21:00etara, helduentzat. Barixakuetan denak elkarrekin ariko dira 19:00etatik 20:30era, Olaizaga kiroldegian.

# 168 lagunek hartu dute parte estreinako gaueko krosean

Mugertza kroserako dirua biltzeko antolatu zuen Mintxeta atletismo taldeak zapatuko gaueko krosa, eta, 168 lagunek hartu zuten parte. Antxitxikariek zazpi kilometro egin zituzten korrika, eta ibilbide guztian zehar jaso zituzten ikusleen animoak. Umeak, gazteak eta helduak; emakumezkoak eta gizonezkoak; guztiek bat eginda, umore onean ospatu zuten atletismoaren jaia. www.ElgoiBARREN.net helbidean dituzue sailkapena eta argazki gehiago.



*Ainhoa Lendinez izan zen lehen emakumezkoa seniorretan.*



*9 eta 15 urte artekoek arratsaldean egin zuten korrika.*



*P.M. Muñoz del Pozo irabazlea, alabarekin helmugan sartzen.*



*Batzuek ez zuten irribarrea galdu ibilbide osoan.*



*Korrikalariak, ahalegin betean.*



*CD Elgoibarko jokalari ohiak.*



*Iker Maiora izan zen azkarrena elgoibartarren eta mendaroarren artean.*



*Kiroltasuna izan zen nagusi gaueko krosean.*

# Zumarragako lauko torneoko finala jokatuko du Alcorta eskubaloi taldeak



Alcorta Forging Groupek, senior mailako eskubaloi taldeak, Zumarragako lauko torneoko finala jokatuko du, gaur (irailak 17), 20:00etatik aurrera, Ispilla kiroldegian. Bergarako taldea izango dute aurrez aurre. Finalerdietan Urola Lazti hartu zuten mendean elgoibartarrek, Bergarak moduan Bigarren Nazional mailan –Alcortak baino bat gorago– jokatzen duen taldea. Denboraldia berotzen hasteko torneo aproposak dira Zumarragakoa modukoak. Izan ere, lagunarteko norgehiagokak izan arren, norbere mailaren berri izan eta konfiantza hartzeko baliogarriak dira. Zumarragan ikusitakoaren arabera, Alcortako jokalariek etxeko lanak ongi egin dituzte aurre-denboraldian. Lauko torneoaren finalerdietan, etxeko taldea, Urretxu-Zumarragako Urola Lazti, hartu zuten mendean (26-28). Egun gutxi barru hasiko den lehenengo Gipuzkoako liga txapelketan parte hartuko du Alcorta eskubaloi taldeak, eta gutxienez iazko maila berdintzen saiatuko dira. Iaz igoera fasea jokatzeko sailkatu ziren.

## Maribel Fernandezek eta Jesus Marizkurrenak irabazi dute Mendaroko frontenis maratoi mistoa

Bederatzi bikote mistok parte hartu zuten joan den asteburuan Mendaron jokatu zen frontenis maratoian. Zapatuan elkarren aurka jokatu ondoren, bi bikote sailkatu ziren domekan jokatu zen finalerako: Maribel Fernandezek eta Jesus Marizkurrenak osatutako bikotea batetik, eta Sonia Gentok eta Jesus Fernandezek osatutakoa, bestetik. Lehenengoek irabazi zuten finala eta, hortaz, estraineko frontenis maratoiko txapela. Finaleko emaitza 30 eta 17 izan zen.



# AGENDA

**PILOTA** (Plaza Handian)
Barixakua, 17
18:00 Karmona anaiak – Ulazia-Arrieta
Ondoren, Gaizka-Sahaztu – Uriona-Portu

Domeka, 19
11:00 Zangitu-Egaña – Txurruka anaiak
Ondoren, Karmel-Gerrika – Basueta-Agirrebeña

**ARETO FUTBOLA** (Kiroldegian)
Zapatua, 18
17:00 Concepto Createch Elg. – Gernika F.S (Sen.)

**FUTBOLA** (Mintxetan)
Zapatua, 18
10:30 Elgoibar A – Elgoibar B (Kad.)
12:30 Elgoibar – Euskalduna (Jub.)
17:00 Haundi – Arenas (3. maila)
Domeka, 19
12:30 Elgoibar – Anaitasuna (Ohorezko inf.)

**ESKUBALOIA** (Kiroldegian)
Zapatua, 18
10:30 Sanlo Elg. – Pulpo. (Inf. nesk.)
12:00 Sanlo Elg. – Pulpo. (Inf. nesk.)
18:30 Tecnifuelle Elg. – Kukullaga. (Senior nesk.)

## Ereñoko motokrosa irabazi du Ibon Beristainek

Ereñoko (Gernika) motokros proba irabazi ostean, alebin mailako Euskadiko Motokros Txapelketako zerrenda nagusian lehenengo dago Ibon Beristain. Txapelketa amaitzeko bi proba geratzen dira, eta ondorengoei alde handia ateratzen die Beristainek. Espainiako txapelketan ere primeran dabil motorzale elgoibartarra –13. postuan–. Ereñoko proban Aitor eta Asier Urain anaiek ere parte hartu zuten, jubenil eta alebin mailan, hurrenez hurren. Asier laugarren postuan sailkatu zen, eta bosgarren postuan Aitor, anaia zaharrena.



## LANA

### ESKAERA

- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest.
☎ 686 234 612 / 671 476 869
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Interna edo orduka.
☎ 666 771 701
- Neska nagusiak eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Interna edo orduka.
☎ 646 821 678
- Mutila sukaldari laguntzaile edo baserrian lan egiteko prest. ☎ 686 077 316
- Mutila lorezain, sukaldari laguntzaile edo igeltsero lanak egiteko prest. ☎ 688 647 664
- Neska euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Gauez nahiz egunez. Klinika Laguntzaile titulua dut.
☎ 943 748 209
- Neska gaztea umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 652 446 228
- Boliviako bikotea nagusiak zaintzeko edo baserrian lan egiteko prest. Papelak ditugu.
☎ 661 344 028 / 661 343 549
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎ 649 663 091
- Mutila edozein lan egiteko prest. ☎ 665 513 851
- Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎ 626 490 986
- Emakumea edozein lan egiteko prest.
☎ 637 966 749
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎ 690 025 810
- Mutila baserrian lan egin, nagusiak zaindu edo sukaldean laguntzeko prest. ☎ 686 077 316
- Mutil arduratsua nagusiak zaindu, banatzaile lanak edo garbiketak egiteko prest. ☎ 671 368 324
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Astegun eta asteburuetan.
☎ 646 821 678
- Mutila nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 681 154 706
- Gizona lantegian lan egiteko prest. Elektrikari ikasketak ditut.
☎ 652 779 800
- Neska euskalduna umeak zaintzeko prest.
☎ 617 388 554
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko prest.
☎ 638 338 816
- Mutila nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Interno edo orduka. ☎ 616 260 793
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 666 771 701
- Gizona peoi, elektrikari edo pintore lanak egiteko prest. ☎ 606 612 834
- Emakumea nagusiak zaintzeko, sukaldari edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 688 633 463
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 648 603 029
- Mutila nagusiak zaindu, banatzaile lanak edo garbiketak egiteko prest. ☎ 671 368 324
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 686 234 612
- Mutila lorezain, sukaldari laguntzaile edo igeltsero lanak egiteko prest. ☎ 626 752 558
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 671 476 869
- Neska umeak edo nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 669 311 385
- Neska umeak edo nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 648 603 029

### ESKAINTZA

- Emakumea behar da bi ume zaintzeko. Hogei ordu astean. ☎ 696 178 695
- Zerbitzaria behar da. ☎ 943 741 600
- Zerbitzaria eta sukaldari laguntzailea behar dira.
☎ 943 743 196
- 25 eta 40 urte arteko mutil euskalduna behar da komertzial arloan lan egiteko.☎ 685 714 572
- 2. mailako pintore ofiziala edo pintoretzarako ikasten ari den bat behar da.☎ 648 210 852

## ETXEBIZITZAK

### ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Hiru edo lau logelatako etxea hartuko nuke alokairuan.
☎ 699 813 826
- Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 618 149 535
- Pisua hartuko nuke alokairuan, Elgoibarren.
☎ 600 221 704
- Etxea alokatzen dut. Hiru logela eta garajea erabiltzeko eskubidea. ☎ 648 978 370 / 678 803 535
- Neska gazteak pisua konpartituko luke alokairuan.
☎ 618 149 535
- Apartamentua alokatzen da Santo Domingo de la Calzadan (Errioxa). Erdigunean. Prezio onean.
☎ 941 341 437 / 676 882 373 (Esther)
- Errosario kalean etxebizitza alokagai. 110 metro koadro. Altzariekin. ☎ 943 742 034 / 639 353 331
- Etxea salgai Elgoibarren P. Muguruza etorbidean. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Egoera onean.☎ 943 082 682/ 688 658 183 (Maite)

## AUTOAK ETA GARAJEAK

- Karabana eta autokarabanentzako garaje plazak saltzen dira. Plaza mugatuak. Erdigunean. Sarrera egokia. Finantzaketa aukera. ☎ 605 713 012
- Renault Space bat salgai. diesela, 99 urtekoa, kilometro gutxi ditu, eta oso egoera onean dago.
☎ 607 584 011

## PARTIKULARRAK

- Magisteritzako ikasleak klase partikularrak emango lizkieke LHko umeei.
☎ 665 759 849
- Ingelesa ikasteko partikularrak ematen ditut.
☎ 679 113 446
- DBHko ikasleei klase partikularrak emateko pertsona behar da.
☎ 652 763 264

## BESTELAKOAK

- Ezinduentzako garabia salgai.
☎ 661 304 260
- Umearentzako sehaska oparitzen dut.
☎ 676 889 260






• Zorionak, **Eneritz,** 2 urtetxo egin dituzulako. Etxekoen partez.



• Zorionak, **Erik,** hilaren 14an urtebete egin zenuelako. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Udane,** etxekoen, eta bereziki, Goiatzen partez.



• Zorionak, **amama!** Alaba eta biloben partez. Ondo pasa eguna.



• Zorionak, **Manex**, astelehenean urtebete egingo duzulako. Ondo pasa! familiakoen partez.



• Zorionak, **Asier,** zure lehenengo urtebetetzean. Etxekoen partez.



• Zorionak, **Mikel,** igandean 14 urte egingo dituzulako. Segi horrela, txapeldun! Mila muxu etxekoen, eta bereziki, Oihaneren partez.



• Zorionak, **Izaro,** uztailean 4 urte egin zenituelako. Muxu potolo bat bereziki, Noraren partez.



• Zorionak, **June** maittia, zure bigarren urtebetetzean. Familiakoen eta bereziki, Malenen partez.



• Zorionak, **txapeldun,** zure laugarren urtebetetzean. Patxo handi bat etxekoen, eta bereziki, Endikaren partez.



• Zorionak, **Jara**, 6 urte bete dituzulako. Etxekoen, eta bereziki, Celia eta Marinaren partez.



• Zorionak, **Mikel,** hilaren 15ean 3 urte egin zenituelako. Muxu handi bat etxekoen partez.



• Zorionak, **Nora,** maitti! Oso ondo pasatu genuen zure egunean! Muxu handi bat etxekoen eta bereziki, Mirari eta Jimyren partez.



• Zorionak, **Miren,** igandean 8 urte egingo dituzulako. Etxekoen, eta bereziki, Aitor eta Ainhoaren partez.



• Zorionak, **Olatz!** Astelehenean, 5 urte! Orain bai neska handia egiten ari zarela! Muxu bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Alain** dagoeneko 10 urte handi bete dituzulako. Muxu potolo bat familiako guztien partez.



• Zorionak, **Maialen eta amatxo!** Espero dugu ondo pasatu izana zuen egunean. Muxu handi bana.



• Zorionak, **bikote!** Azkenean iritsi da horrenbeste itxarondako eguna. Zorterik handiena, abentura berri honetan. Ondo pasa! Koadrilakoen partez.



• Zorionak, **Yaiza eta Yeray!** Azkenean iritsi da zuen hilabetea! Segi horrela!



• Zorionak, **Anetxo**, domekan 4 urte egingo dituzulako. Familiako guztien partez.

• Zorionak, **amama Lolita!** Ondo pasa! Zapatuan kafetxo bat hartuko dugu, ezta? Muxu handi bat familiakoen, eta bereziki, Mikel eta Oihaneren partez.

• Zorionak, **amatxu Nekane!** %100 N.K.N., ok? Muxu pila bat etxekoen eta bereziki, Oihaneren partez.

**Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro.**
Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguazten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. BARRENeko bulegora 12:00ak baino lehen, edo *barren@elgoibarkoizarra.com* e-postara bidali.

**OKINDEGIA**

19 domeka BOLINTXO

**FARMAZIAK**

| | 24 ORDUZ |
|---|---|
| 17 | Fernandez |
| 18 | Yudego |
| 19 | Yudego |
| 20 | Zabaleta |
| 21 | Etxeberria *(Errosario)* |
| 22 | Ibañez |
| 23 | Garitaonandia-Bidasolo |
| 24 | Etxeberria *(Santa Ana)* |

Ibañez
Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez
Herriko enparantza 4,
Garagartza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta
Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

**INFORMAZIO GEHIAGO:**




Egin klik
*www.elgoiBARREN.net*

## 17 barixakua

### Aisialdia

17:30 Kiribilka

2 eta 6 urteko umeentzako eta haien gurasoentzako egitasmoa. Plaza Handian. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

### Babes-argazkia

19:00 BARRENen aldeko argazkia

*Ni ere banaiz BARREN* kanpainaren aurkezpena egingo dugu, eta ondoren aldizkariari babesa emateko erretratua aterako dugu. Nafarroa Plazan, Kultur Etxe aurrean.

## 18 zapatua

### Feria

11:00 Txankakuaren feria

Txankakua merkatari elkartekoak kalera irtengo dira, eta Plaza Handian jarriko dituzte salgai euren produktuak. Umeentzako jolasak, txu-txu trena eta taberna ere egongo dira.

## 19 domeka

### Ikuskizuna

12:00 Txakur erakustaldia

Zubibai elkarteak antolatuta, txakur erakustaldia egingo dute Altzolako frontoian.

### Musika

12:30 Musika Bandaren kontzertua

Udal Musika Bandak hileroko kontzertua eskainiko du, Herriko Antzokian.

Egitaraua:

1. *Filigrana*, martxa (R. Dorado)
2. *Concerto d'amore*, obertura (J. de Haan)
3. *Bugler's holiday*, tronpeta festa (L. Anderson)
4. *En las místicas tierras de Egipto,* fantasía (Ketelbey De Meij).
5. *El barberillo de Lavapies*, fantasia handia, (A. Barbieri).

## 21 martitzena

### Hitzaldia

19:30 Elikadura natural eta energetikoa

Marta Francisco Barcenas dietistak janari makrobiotikoari buruzko hitzaldia eskainiko du Kemen belardendan.

### Bilera

20:00 Gazte lokalei buruzko bilera

Inmobiliariak eta lokalak dituzten jabeentzako bilera, Mekan.

## 24 barixakua

### Bilera

18:00 Gazte lokalei buruzko bilera

Gazteentzako bilera, Mekan.



**LUDOTEKAKO EKINTZAK**

BARIXAKUA 17
Kanpo jolasak 17:00

ASTELEHENA 20
Musika jolasak 17:00

MARTITZENA 21
Sukaldaritza tailerra, txikientzat 17:30

EGUAZTENA 22
Sukaldaritza tailerra, handientzat 17:30

EGUENA 27
Marrazki txokoa 17:30

**GAZTELEKUKO EKINTZAK**

BARIXAKUA 17
*Ni ere banaiz BARREN* 19:00

ZAPATUA 18
Elgoibar koloretan 17:00

DOMEKA 19
Zinea 17:00

MARTITZENA 21
Eskulanak 17:00

EGUAZTENA 22
Txoko pribatua 17:00

EGUENA 23
Sukalde txokoa17:00




**«Ciudad de vida y muerte»**
**(Ongarri zine-kluba)**
17, barixakua: 22:15

**«Madres & hijas»**
18, zapatua: 19:00/22:15
19, domeka: 19:00
20, astelehena: 21:30

## Gure gomendioa

***Ni ere banaiz BARREN***

Gaur, barixakua, 19:00etan, Kultur Etxe aurrean

BARREN astekariak 15.000 euro behar ditu 2010erako aurreikusitako defizitari aurre egiteko. Horretarako, *Ni ere banaiz BARREN* kanpaina jarri dugu martxan, eta gaur egingo dugu aurkezpen ekitaldia, 19:00etan Kultur Etxe aurrean. Aldizkariaren aldeko argazkia aterako dugu, eta ondoren luntxa egongo da.



Ni ere banaiz

BARREN!


Lanbroa




Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 6etatik aurrera.
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06


# Zerikasi

## IKASTAROAK

### Argazkigintza digitalaren hastapenak

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2010-09-27 / Bukaera data: 2010-11-10
Non: Eibarren
Izena emateko azken eguna: Kontsultatu

### Patin linealen ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2010-10-04 / Bukaera data: 2010-12-29
Non: Mutrikun
Izena emateko azken eguna: Irailak 30

### Emozioei buruzko ikastaroa

Norentzat: Emakumeentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2010-10-06 / Bukaera data: 2010-12-15
Non: Eibarren
Izena emateko azken eguna: Irailak 30

### Coaching

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2010-10-06 / Bukaera data: 2010-10-13
Non: Elgoibarren
Izena emateko azken eguna: Urriak 6

### Web diseinua

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2010-10-21 / Bukaera data: 2010-11-03
Non: Elgoibarren
Izena emateko azken eguna: Urriak 21

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
***www.zerikasi.com edo 943 74 82 71***



II. URTEURRENA

## DELFINA ARRIOLA LETE

2008ko irailaren 7an hil zen. Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailak 18, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.

*“Gure ondotik joan zinen, baina betiko izango zaitugu gure bihotzean”*



## Erretratu zaharra



**1960**

Aste honetako erretratu zaharra Gloria Odriak ekarri du BARRENEra. 1960an ateratako argazkia da. Orduan ere mendi irteerak antolatzen zituen Morkaikok, eta egun hartan Gorbeara joan ziren hainbat herritar. Ikusten den bezala, garai hartako jantziek ez zeukaten gaur egun mendian erabiltzen diren arropekin zerikusirik. Gogora ditzagun erretratuan azaltzen direnak:

Ezkerretik eskumara: Javier Zengotita, Fermin Zubiaurre (†) , Jose Mari Igartua (†) , Gloria Odria, Angel Astigarraga (†) eta Patxi Lizarralde.



ESKERTZA

## JOSE LUIS HUIDOBRO TORINOS

2010eko irailaren 4an hil zen, 58 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





ESKERTZA

## ALEJANDRO ACEREDA IRIONDO

2010eko irailaren 4an hil zen, 77 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



CURSO 2010-2011 **IKASTURTEA**
**MATRIKULA ZABALIK**
MATRÍCULA ABIERTA

www.udaleuskaltegiak.net

**Euskara ikasteko bide zuzena**
Tu vía al euskera



# DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

Nafarroa Enparantza 2
20870 **ELGOIBAR** • Tel./Faxa: 943 74 27 31
E-posta: elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net

**IKASTAROAK**
- Aurrez aurrekoak /presenciales
  - 2, 3 edo 4 egun astean
- Autoikaskuntza Internet bidez /autoaprendizaje

**IKASTARO BEREZIAK**
- Enpresak
- AISA (Etorkinak) /inmigrantes
- Merkatariak eta ostalaritza

**AZTERKETETARAKO PRESTAKETA**
- Perfilak (Administrazioa, Osakidetza, Hezkuntza, ...
- HABEren 1., 2., 3. eta 4. mailak (TITULU OFIZIALAK)
- EGA

**16 urtetik gorakoentzat**

**MATRIKULALDIA**
irailaren 24ra arte /hasta el 24 de septiembre

**DIRU-LAGUNTZAK ETA BEKAK**
Informa zaitez euskaltegian!

**MATRIKULA ORDUTEGIA**
ELGOIBAR: 09:00 – 13:00 / 15:30 – 19:30

UDAL EUSKALTEGIAK

EUSKALTEGIS MUNICIPALES
EUSKARAREN IRAKASKUNTZARAKO ENTITATE OFIZIALA

# Alemana, frantsesa, ingelesa, italiera eta txinera

## Ordutegi bereziak!

→ Talde murriztuak mailaka.
→ Komunikazio klaseak.
→ 2 egun astean. (astelehena eta asteazkena edo asteartea eta osteguna.)
→ 3 ordu astean. (Goizez eta arratsaldez)

Kurtso hasiera urriaren 4an eta bukaera ekainaren 24an

Industry Language Services

Informazioa, matrikula eta ordutegiak
943 744 040
www.ils.es

ILS

INDUSTRY LANGUAGE SERVICES

# 2010eko SAN MIGEL JAIAK

## ELGOIBARKO AIASTIA AUZOAN

### IRAILAK 24 - Ostirala

"GAZTEEN EGUNA"

- Arratsaldeko 18:30etan: **Kanpai jotzea** jaien hasiera adieraziz.
- 20:00etan: **TRIKI BERTSO KALEJIRA.** Ekaitz, Arantza, Maialen Lujambio eta Xabi Paiarekin
- 21:00etan: **TRIKI BERTSO AFARIA**
- Ondoren: **DISKO FESTA / STRIPTEASE**

### IRAILAK 25 - Larunbata

- Arratsaldeko 17:00etan: **San Migelko X. ARTZAI TXAKUR TXAPELKETA**
  Euskal Herriko arraza libreko finala

| ARTZAINA | HERRIA | TXAKURRA | SAILKAPENA | PROBINTZIA |
|---|---|---|---|---|
| PELLO PAGADIZABAL | AIA | LANTZ | 1. | GIPUZKOA |
| MIGUEL AZPURUA | OIARTZUN | BETI | 2. | GIPUZKOA |
| JOSE ANTONIO ARRILLAGA | ELGOIBAR | TXIKI | 3. | GIPUZKOA |
| PELLO SEGUROLA | MATXINBENTA | ARTZAI | 4. | GIPUZKOA |
| FELIX IRIGOIEN | AMAIUR | PELLO | 1. | NAFARROA |
| CARLOS PINEDO | ANDAJOIA | TXIKI | 1. | ARABA |
| CARLOS PINEDO | ANDAJOIA | XUSTER | 2. | ARABA |
| | | | 1. | BIZKAIA |
| | | | 2. | BIZKAIA |

- Gaueko 22:30etan: **Borja Uzuriagaren Oroimenez Haritz E.D.T. ekitaldia**
- Ondoren: **Erromeria KUPELA taldearekin**
- 01:00ak aldera: **BOLO TXAPELKETA**
  **SARIAK:**
  **1. Motoserra**
  **2. 70 euro**
  **3. 50 euro**
  **4. 25 euro**
  **5. 15 euro**
  **6. Ustekabea**
  **Lehenengo auzotarrentzako garaikurra.**

### IRAILAK 26 - Igandea

- Goizeko 11:15etan: **MEZA**
- 12:00etan: **San Migelera IV. Igoera korrika**
- Ondoren: **BALTZOLA ANAIAK trikitilariak**
- Arratsaldeko 17:00etan: **IDI DEMAK**
  Soarte (Elgoibar)
  Bikixak (Hernani)
  Barriola (Asteasu)

**SARIAK:**

**1. 900 euro, garaikurra eta mantak**
**2. 800 euro eta garaikurra**
**3. 700 euro eta garaikurra**

- Ondoren: **BALTZOLA ANAIEKIN erromeria**

### IRAILAK 29 - Asteazkena "SAN MIGEL EGUNA"

- Goizeko 11:30etan: **MEZA NAGUSIA**
- Ondoren: **ZIARDA** eta **MAÑU** bertsolariak
- Eguerdiko 13:00etan: **Pilota Partidua**
  **KEPA - LOIOLA**
  **ARRIBILLAGA - LIZARRALDE**
- Ondoren: trikitilariak, **ELUSTONDO ANAI-ARREBAK**
- Gaueko 20:30etan: **AUZOTARREN AFARIA**
- Ondoren: **Elustondo anai-arrebekin** erromeria

ELGOIBARKO UDALA

**OHARRA:** Aparkalekua egongo da. Antolatzaileak ez dira gerta daitezkeen ezbeharretaz jabetuko.

Belaustegi Baserria
JATETXEA
Josu Mugerza
SUKALDARITZA
San Migel Gaina (Alto de San Miguel)
20870 ELGOIBAR
Tel. 943 74 31 02 - Fax 943 74 36 41
www.belaustegi.com

EGVR LVR
VENTA Y REPARACION
Husqvarna
Karmen Plaza, 21 behea
Tfnoa.: 94 616 76 32
48270 MARKINA-XEMEIN

Erakuntza Garbiketa eta Lorazaintzako Makinaria
Arrizabal
Pol. Olaso, C/. Olasope 14
20870 ELGOIBAR
Tel. 943 74 08 66
Fax: 943 74 25 90
arrizabal@arrizabal.com
www.arrizabal.com

ITUARTE PENTSUAK, S.L.
Karega Industrialdea, Pab. 6, Sub. 1
Telefonoa 94 616 87 48 - Fax 94 616 91 24
48270 MARKINA - XEMEIN (Bizkaia)